



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 25a

74. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroan Animaliak Babestekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da San Fermin ikastolarekin DBHko laugarren lerroa itundu dezan 2010-2011 ikasturtetik aurrera. Mozioa erretiratzea (4. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Akisgrango Adierazpena. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Petö metodoaren bidezko errehabilitazioa diruz laguntzeko kontusaila murriztu izanari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (5. or.).

—Galdera, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharriaz buruzko azterlana egite aldera sortutako taldeak eginiko urratsei eta ateratako ondorioei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (5. or.).

—Galdera, mihi urdinaren gaitzeko 1. eta 8. serotipoei buruz hartutako neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (6. or.).

—Galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Programaren gaineko eskumena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik Navarra de Suelo Residencial, S.A. enpresa publikora pasatzeko arrazoiei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (7. or.).

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin duen musulmanei ziurtatze aldera hildakoak erritu islamiarren arabera lurperatu ahal izatea, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (8. or.).

—Galdera, Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubidean afiliatuta dauden emakumeei laguntzak emate aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (9. or.).

—Galdera, Osasun Departamentuak eremu euskaldunean bizi direnei jakinarazpenak euskaraz ere bidaltzeari buruzkoa eta komunikazio idatzietan hizkera ez sexista erabiltzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (9. or.).

—Galdera, nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak finantzatze aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzko lan-taldearen txostena. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (11. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan Animaliak Babestekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2010eko ekainaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan Animaliak Babesteko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta 2010eko maiatzaren 13ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroan Animaliak Babesteko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2010eko irailaren 17ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Fermin ikastolarekin DBHko laugarren lerroa itundu dezan 2010-2011 ikasturtetik aurrera.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita San Fermin ikastolarekin DBHko laugarren lerroa itundu dezan 2010-2011 ikasturte-

tik aurrera, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea. Mozio hori 2010eko ekainaren 18ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Akisgrango Adierazpena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko ekainaren 10en egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere egiten du 2010eko martxoan onetsitako Akisgrango Adierazpena”

Iruñean, 2010eko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Petö metodoaren bidezko errehabilitazioa diruz laguntzeko kontusaila murriztu izanari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Petö metodoaren bidezko errehabilitazioa diruz laguntzeko kontusaila murriztu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

- 2001etik bada kontusail bat garuneko perlesia eta antzeko gaixotasunak dituzten Nafarroako 16 urtez beherako pertsonek Petö metodoaren bidez egiten duten errehabilitazioa diruz laguntzen duena. Egia al da kontusail hori murriztu eginen dela?

- Egia bada, zein da murrizketa hori justifikatzen duen arrazoia?

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharriaz buruzko azterlana egite aldera sortutako taldeak eginiko urratsei eta ateratako ondorioei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharriaz buruzko azterlana egite aldera sortu-

tako taldeak eginiko urratsei eta ateratako ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko apirilaren 29an eginiko Osoko Bilkuran, mozio bat onetsi zen, zeina honela agertzen baita Parlamentuko Aldizkari Ofizialean:

“Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da lan-talde tekniko bat era dezan, azterlan bat egite aldera egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharrezanez buruz. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du.

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du lan-talde tekniko bat era dezan, azterlan bat egite aldera egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako gaur egungo eta hurrengo urteetako beharrezanez buruz; besteak beste, zainketa aringarrietan eta geriatrian.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du zerbitzu horiek baliabide berekiekin edo besteren baliabideekin ematearen kostuak zehatz ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du San Juan de Dios ospitalearekin itun bat egiteko aukera azter dezan, egiturazko izaera izanen duena eta Nafarroako osasun-sistema publikoaren plangintzan txertatzeko konpromisoa ere barne hartuko duena. Itun hori datozen hamarkadetarako izanen litzateke, eta horren bidez erantzun egokia, behar adinakoa eta kalitatezkoa emanen litzateke Nafarroako biztanleek ospitale-egonaldi ertain eta luzeei dagokienez dituzten beharrezanez.

Hori dela-eta, hona galdera:

Zer urrats egin dira eta zeintzuk dira lan-talde tekniko horrek atera dituen ondorioak?

Iruñean, 2010eko ekainaren 17an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, mihi urdinaren gaitzeko 1. eta 8. serotipoei buruz hartutako neurri buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, mihi urdinaren gaitzeko 1. eta 8. serotipoei buruz hartutako neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da mihi urdinaren gaitza eragiten duten 1. eta 8. serotipoen egoera Nafarroan?

- Zeintzuk dira hartutako neurriak?

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Programaren gaineko eskumena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik Navarra de Suelo Residencial, S.A. enpresa publikora pasatzeko arrazoiei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Programaren gaineko eskumena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik Navarra de Suelo Residencial, S.A. enpresa publikora pasatzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarrirako Programa gobernu zentralaren ekimen bat da, landa eremuen garapenerako, eta progra-

ma horren bidez Nafarroako lau eskualdek 46,4 milioi euro jasoko dituzte, Estatuak eta Nafarroako Gobernuak erdi bana finantzatuta. 2009ko azaroaren 3an, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak azaldu zuen Landa Garapen Iraungarrirako Programa nola aplikatuko zen Nafarroan, eta, esan zuenez, diru kopuru hori lehentasunezko zatik jo diren lau eskualderen artean banatuko ziren, modu honetan: Pirinioak (% 35,7), Atlantikoko mendiak (% 21,54), Estellerriko mendialdea (% 25,12) eta Nafarroaren Ekialdeko erdialdeko mendiak (% 17,64). Esan behar da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak eginiko agerraldia 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarrirako Programa azaltzeko izan zela.

2010eko maiatzaren 25ean, 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarrirako Programaren berri eman zen Navarra de Suelo Residencial, S.A. (NASURSA) enpresa publikoaren webgunean, eta, hala, informazio publikorako epea ireki zen Landa Garapen Iraungarrirako Programaren eskualdeko planetarako, 2010eko ekainaren 23an amaituko dena.

• Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Programaren gaineko eskumena zergatik pasa da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentutik Navarra de Suelo Residencial, S.A. (NASURSA) enpresa publikora?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin duen musulmanei ziurtatze aldera hildakoak erritu islamiarraren arabera lurperatu ahal izatea.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin duen musulmanei ziurtatze aldera hildakoak erritu islamiarraren arabera lurperatu ahal izatea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunari, idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena:

Sinismen, pentsamendu, kontzientzia eta erlijio aniztasuna betidanik izan dira Espainian, baina, gaur egun, aniztasun hori are nabarmenagoa da. Azken urteotako migrazio-mugimenduen eraginez, erlijio islamikoko 15.000 pertsona bizi dira gaur egun Nafarroan.

Nazioarteko eta estatuko zenbait araudik, horien artean Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua, pentsamendu, erlijio eta kultu eskubidea

babesten dute. Babes horren ondorioz onetsi zen, 26/1992 Legearen bidez, Espainiar Estatuaren eta Espainiako komunitate islamiarraren arteko lankidetzaren hitzarmena.

Komunitate islamiarrarekin sinaturiko hitzarmenaren 2.5 artikuluan hau esaten da: "Hilerrri islamiarrei aplikatuko zaizkie 5. artikulua kultu-tokiatarako ezartzen dituen legezko onurak. Espainiako Batzorde Islamiarraren partaide diren komunitate islamiarrei aitortuko zaie udal hilerrietan lur-emate islamiarrak egiteko lurzati erreserbatuak emateko eskubidea, bai eta berezko hilerrri islamiarrak izateko eskubidea ere. Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira lur-emate, hilobi eta hileta-errituei buruzko arau islamiar tradizionalak betetze aldera. Erritu horiek tokiko komunitate islamiarraren esku-hartzearekin eginen dira."

2003an, foru erkidegoak bizi diren musulmanei haien ahaideak erritu islamiarrari jarraikiz lur emateko aukera ziurtatzeko konponbideak bilatzearen alde agertu zen Nafarroako Parlamentua, Nafarroako komunitatea islamiarrarekin adostuta eta indarrean dagoen legeriaren arabera.

Hori dela eta, ondoko galdera aurkeztu dut idatziz erantzuteko:

Zer urrats egin ditu edo egiten ari da Nafarroako Gobernuak, zuzenean edo beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan, Nafarroan bizi diren herritar musulmanei beren ahaideak erritu islamiarraren arabera lurperatu ahal izanzen dituztela bermatzeko, indarrean dagoen legeriari jarraikiz eta Espainiak gai horri buruz sinaturiko hitzarmenak garatze aldera?

Iruñean, 2010eko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubidean afiliatuta dauden emakumeei laguntzak emate aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubidean afiliatuta dauden emakumeei laguntzak emate aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Aitor Etxarri Pellejero, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Nekazaritzako Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden emakumeei diru-laguntzak emateko Nafarroako Gobernuak 2014ra bitarte 325.000 euroko gastua egingen du.

• Zein da Nafarroako Gobernuak Nekazaritzako Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden emakumeei diru-laguntzak emateko erabili duen aurrekontuen partida?

Iruñean, 2010eko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Osasun Departamentuak eremu euskaldunean bizi direnei jakinarazpenak euskaraz ere bidaltzeari buruzkoa eta komunikazio idatzietan hizkera ez sexista erabiltzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak eremu euskaldunean bizi direnei jakinarazpenak euskaraz ere bidaltzeari buruzkoa eta komunikazio idatzietan hizkera ez sexista erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer egingen du zure departamentuak eremu euskaldunean bizi diren pertsonak jakinarazpenak euskaraz ere jaso ditzaten?

Zer egingen du zure departamentuak komunikazio idatzietan hizkera ez sexista erabiltzeko? (Honekin batera zure departamentuko gutun bat eranstean da, jokoera horren erakusgarri)

Iruñean, 2010eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak finantzatze aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak finantzatze aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zer kontusail baliatu du Nafarroako Gobernuak nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak finantzatze aldera?

Iruñean, 2010eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzko lan-taldearen txostena.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAJETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikulua ezarritakoa betez, generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzko lan-taldearen txostena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Txostena 2010eko maiatzaren 26an onetsi du Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzko lan-taldearen txostena

Generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzko txosten bat prestatzeko ardura zuen Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeko lan-taldeak, Erregelamenduko 55.2 artikuluan xedatua betez, ondoko txostena aurkeztu dio legebiltzarreko Mahaiari.

TXOSTENA

Emakumeen aurkako indarkeria da, inondik ere, gizonezkoen eta emakumezkoen artean botere-harremanei begira oraindik ere dagoen desorekaren adierazpiderik larriena, eta gizarte demokratikoaren erabateko garapenerako eragozpen bat da.

Generoko indarkeria oinarritzko eskubideak eta askatasunak baliatu ahal izatearen aurkako eraso bat da. Indarkeria mota hori gizarte-arazo larri bat da, ez baita gertakari isolatu bat; izan ere, gizarte nahiz hezkuntza maila guztietan gertatzen da, eta arazo pribatu bat izatetik gizarte-arazo bat izatera igaro da. Hartara, arazo horri konponbide bat ematea guztioi dagokigu, bai botere publikoei bai gizarte zibil osoari.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2009ko maiatzaren 27a, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako eskabidea eztabaidatu ondotik, Generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzko lan-taldea eratzea erabaki zuen.

Erabaki hura betearazte aldera, 2009ko ekainaren 24an eratu zen lan-taldea, eta ondoko kideak izan ditu:

Concepción Mateo Pérez andrea (UPN).

Ordezkoa: Faustino León Chivite jauna

Ioseba Eceolaza Latorre jauna (NaBai)

Ordezkoa: Nekane Pérez Irazabal andrea.

José Javier Monzón Romé jauna (SPN).

Ordezkoa: María Victoria Arraiza Zorzano andrea

Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN).

Ordezkoa: Jose Andrés Burguete Torres jauna.

Ana Figueras Castellano andrea (NEB).

Ordezkoa: Ion Erro Armendáriz jauna.

Lan-taldeak Legebiltzarreko legelari Nekane Iriarte Amigot andrearen laguntza jaso du.

Lan-taldea eratzeko bilkuran Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Concepción Mateo Pérez andrea hautatu zen lehendakari.

Legebiltzarren agindua betetze aldera, hainbat bilkura egin izan dira, eta horietan agerraldia egin dute bai erakundeek eta elkarteek bai norbanakoek ere, eta kasuko luzapenak izapidetu eta onartu dira, agindutako lanak bukatu ahal izateko.

Ondokoak izan dira lan-taldean agertu direnak:

Eduarne Juanarena andrea eta Maite Zalacain andrea, Tuterako Udalaren Emakumeari Laguntzeko Zentrokoak; Rosa López Garnica andrea, Esperanza González andrea eta Marta Goñi

andrea, Iruñeko Udalekoak; M^a Antonia Caro andrea, berdintasunaren arloko aditua; Sagrario Pérez Mateo andrea, Tratu txarrak jasan dituzten emakumeen aldeko elkartekoa; Idoia Merino andrea eta Ainhoa Saiz Delgado andrea, Tratu onak taldekoak; Lola Rodríguez andrea eta Daniel Borda jauna, ARGITSUA-Indarkeriarik eta generorik gabe elkartekoak; Teresa Zabalegui andrea eta Aitziber Ochoa andrea, Indarkeria sexistaren aurkako plataformakoak; Eugenio Ros jauna, Foruzaingokoa; M^a José Rodríguez de Armentia andrea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko auzitegiko psikologoa; Isabel Ollero Vallés andrea, Emakumearen aurkako indarkeriaren Iruñeko 1. zb.ko epaitegiko titularra; Ana Fraile Blázquez andrea, Gobernu Ordezkaritzakoa; Marta Álvarez Alonso andrea, Gizarte Gaietako eta Garapenerako Lankidetzako zuzendari nagusia, Sara Ibarrola Inchusta andrea, Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoko zuzendari nagusia; eta Arantxa Munárriz, Nafarroako Gobernu Lehen-dakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Biktimei Laguntzeko atalburua.

1. GOGOETAK ETA BALORAZIO OROKORRAK.

Lan-taldeko kideak ohartzen gara zein den generoko indarkeriak gure gizartean duen garrantzia. Gure ustez, beste edozein indarkeria mota bezala, herritarren giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen aurkako atentatu bat da, onartezina egunero bizikidetasunaren eta elkartasunaren esparruan berdintasunaren alde lan egiten duen gizarte batean.

Ohartzen gara, orobat, gertakari konplexu eta dimentsioaniztun hori sakon aztertzen jarraitu beharra dagoela.

Parlamentu-talde guztiekin adostuta egiteko borondatearekin, ondoko proposamen eta ondorioak aurkezten ditugu, onartuta aldi berean erakundeen eta elkarte-mugimenduen errebindikazioen garrantzia, urteak baitaramatzate arazo konplexu eta dimentsioaniztun hori, bizitzaren alorretan hainbeste ondorio dituena, salatzen eta jorratzen.

Hortaz, lan-talde honen helburu nagusia izan da azpimarratzea erakundeek erantzun integral bat eman behar dutela, indarkeria psikologiko nahiz fisikoaren adierazpenak pairatu dituzten emakumeen giza-duintasunerako eskubidearen bermea hobetzeko, bai eta jarduketak baloratzea ere, generoko indarkeriaren aurkako borrokan lan egiten dutenen inplikazioa eta koordinazioa ziurtatze aldera.

Orobat aztertu ditugu baliabideen efizientzia eta eragingarritasuna eta arazo horren fase ezber-

dinetan esku hartzen duten profesionalen beharrezan, etorkizunean hobetzeko proiektzioak zehaztearren.

2. GENEROKO INDARKERIA ETA JARDUKETA PROPOSAMENAK.

Lan-talde honek, izan diren agerraldien eta lan-taldearen barruko hausnarketan ondorioz, uste du generoko indarkeriari aurrea hartzeko tresna egokia dela gaur egungo legeria, eta zehazki ondokoa:

- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Generoko indarkeriaren kontrako babes integrale-rako neurri buruzkoa.

- Uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamendua (otsailaren 26ko 16/2207 Foru Dekretua) eta 22/2002 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legea.

- Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

- Otsailaren 26ko 16/2007 Foru Dekretua, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena.

- Ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duena.

- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa.

- Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lehenengo Plana (2006-2010). 9. Arloa, "Emakumeen aurkako indarkeria".

- Tratu txar edo/eta sexu eraso biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko erakunde-arte akordioa eta laguntza bateratua emateko protokoloa. 2002ko maiatza. (berraztertu eta gaurkotzeko fasean da une honetan).

Lege-neurriek arazoa arintzen laguntzen dute, baina berez ez dira nahiko arazoa konpontzeko; hartara, dokumentu honen bidez ohartarazi nahi dugu lege-neurriak osatzen dituzten bestelako tresnak sendotu beharra dagoela. Gure iritziz, azaldutako araudi hori guztia ebaluatzen jarraitu behar da, etorkizunean sendotzeko, eta ager daitzeko arazo konponbideak, estrategiak, zirkuituak eta baliabideak identifikatu behar dira. Testuinguru horretan ulertu behar dira txosten honetan egiten diren hausnarketak, gogoetak eta gomendioak.

Berriz diogu berdintasunaren zeharkako sustapenaren bidez egin behar zaiola aurre generoko

indarkeriari, gizarte- nahiz hezkuntza-esparrutik bereziki aurrea hartuta, halako moduz non, tratu txarreko gertakari larriak jazo aurretik, identifikatu ahalko baitira gehiegikeriak edo “ongi tratatzen ez den” egoerak, jokabideak, jarrera pertsonalak eta gizarte-mentalitateak aldatzen haste aldera, jokabide begirunetsuagoetara joateko, gizona eta emakumezkoen arteko berdintasuna, erantzukizuna, genero-kortserik gabe hautatzeko askatasuna, elkartasuna eta gatazkak modu baketsuan konpontzea bezalako balioak oinarri.

Gure ustez, funtsezkoa da erakundeen erantzun integralean sakontzea, indarkeria pairatzen duten emakumeen giza-duintasunerako eskubidearen bermea hobetzeko.

3. GENEROKO INDARKERIA ZER DEN.

Uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legeak honela definitzen du indarkeria sexista: indarkeria edo eraso egintza oro, sexu baten nagusigoan oinarritua, kalte fisiko, sexual edo morala dakarrena edo ekar dezakeena; horren barruan, halako egintzen mehatxuak eta derrigortzea edo askatasungabete arbitrarioa ere sartzen dira, jendaurrean nahiz bizitza familiar edo pribatuan gertatu.

Foru legearen zioen azalpenean Nazio Batuen eta Munduko Osasun Erakundearen deklarazioak aipatzen dira, arazo hau salatu baitute eta agintariak premiari baitituzte emakumeen aurkako generoko indarkeria ez gertatzeko neurriak abian jar ditzaten, misoginiaren muturreko agerraldia den aldetik. Zioen azalpena irakurtzean ondorioztatzen da legegilearen asmoa dela emakumeak indarkeria sexistaren eta generoko indarkeriaren biktimatzat hartzea.

Foru legeko artikuluetan emakumeei bereziki zuzendutako zenbait prestazio eta zerbitzu jasotzen dira, indarkeria sexistaren biktima diren aldetik: larrialdi zerbitzuak, osasun-laguntza, laguntza psikologikoa, etxebizitza eskuratzea, gizarteratzea eta laneratzea, oinarrizko errenta jasotzea, larrialdiko laguntzak eta gorputzeko lesioengatik edo kalte fisiko edo psikikoengatik laguntzak, besteak beste.

Aipatu foru legea erregelamendu bidez garatzen duen otsailaren 26ko 16/2007 Foru Dekretuko zioen azalpenean adierazten da jarduketara esparrua indarkeria sexistaren biktima guztietara hedatzen dela, eta indarkeria sexistaren edo generokoaren biktima izanen direla bi sexuetakoa.

Biktimatzat bi sexuetakoa hartze horrek zailtasun praktikoak sortzen ditu baliabideak eta prestazioak kudeatzerakoan, horiek erabiltzen dituzten emakumezkoak izaten diren arren, gatazkak sor-

tzen dizkietelako baliabideak kudeatzen dituztenei, eta nahastea eragiten dutelako herritarren artean.

Generoko indarkeria emakumeen aurka baliatzen den indarkeria mota bat da, eta emakumeek gizonen aurka baliatzen duten indarkeria ez da generokoa, beste kontzeptu batzuei erantzuten dielako, pertsonen arteko indarkeriaren kontzeptuari esate baterako.

4. HEZKUNTZA

4.1. Lehentasunezkoztat jotzen dugu hezkuntza, generoko indarkeriari aurrea hartzeari begira, aipatutako araudian jaso bezala. Hezkuntzak helburu izan behar du etorkizuneko gizona eta emakumezkoen nortasuna osatzen duten balio individualak finkatzea, horien artean ezin izanen baita desberdintasunik egon.

Gizakien arteko bizikidetasuneko eta bizitzako oinarrizko balioen garrantziaz jabetzea da asmoa, horiei jarraikiz jarduteko. Berdintasunean hezte da generoko indarkeriarik gabeko etorkizuneko gizarteak lortzeko neurri nagusia.

4.2. Orobat azpimarratzen dugu irakasleei berdintasunaren alorreko prestakuntza berariazkoa ematen jarraitu beharra dagoela, hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza etengabearen bitartez, lanak bultzatuz eta dauden bitartekoak sendotuz, eskola kontseiluak osatzen dituzten pertsonen prestakuntza eta laguntza barne, aukera berdintasuneko eta indarkeriaren aurkako eragile eginkizuna bete ahal izan dezaten hezkuntza-erkidegoan.

4.3. Prebentzioaren eta sentsibilizazioaren arloko neurriei dagokienez, izaera iraunkorrez eginiko kanpainen garrantzia nabarmendu da, herritarren artean ahulenak diren sektoreei, esaterako gazte eta emakume etorkinei, zuzendutako helburu berariazkoekiko kanpainena hain zuzen. Prebentzio eta sentsibilizazio kanpaina horiek mezu positiboak eman behar dituzte, eta haien egitekoa izan behar da indarkeriaren arrazoiei erreparatzea, ezen ez norbanakoak kriminalizatzea, hartara errazagoa izanen baita inplikatzeko eta bikote batean onartezinak diren gehiegizko jokabideak identifikatzeko eta jokabide horiek, baina ez norbanakoen, gaitzesten laguntzea.

4.4. Oinarrizko eskubideen eta askatasunen errespetuaren balioak jasotzen dituen gizarte-agertoki bat generoaren ikuspegitik sustatzeak berekin ekarri behar du hala gizona eta emakumezkoen zuzendutako estrategia bat, eta indartu egin behar da esparru horretako gizarte-sentsibilizazioa, baina horretarako beharrezkoa da

gizonezkoak gero eta gehiago inplikatzeko generoko indarkeriaren prebentzioan.

4.5. Ezinbestekoa da emakumeen aurkako tratu txarren aurkako borrokaz arduratzen diren erakundeetako kideak sentsibilizatzeko eta hezteko prozesuekin jarraitzea.

4.6. Plan zehatzak garatu behar dira hezkuntza-maila guztietan, pertsonen arteko harremanak ondoko balioetan oinarritutakoak izan daitezen: berdintasuna, errespetua, erantzukizuna, gatazkak modu baketsuan konpontzea, autonomia eta elkar-tasuna.

5. GENEROKO INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEA ETA ERAKUNDEEN ERANTZUNA.

5.1. Positibotzat jotzen dugu biktimei emandako babesa, bai epaitegietan, bai Foruzaingoaren aldetik, eta positiboa iruditzen zaigu, halaber, ematen zaien laguntza juridikoa eta soziala.

5.2. Indarkeriaren arazoak tratamendu etengabea behar du, konplexua baita. Jarraipen indibidualizatu eta berezitua egin behar da, biktima bakoitzaren berezitasunei eta hark pairatzen duen indarkeria-zikloaren faseetako bakoitzari doitua. Esku-hartze mota horrek giza baliabide nahiz baliabide material ugari erabiltzea eskatzen du, askotarikoak eta zailak izaten diren egoerei aurre egiten laguntzeko profesionalei. Horretarako, eskura dauden baliabideen aukera handitu beharra dago, bereziki indarkeriaren biktima diren emakumeek enplegua lortzera eta mantentzera bideratutakoak, bai eta bestelako baliabide sozioekonomikoen aukera ere, artatze aldera inguruabar askotarikoak, abusu kasuak eta emakumeen aurkako tratu txarrak. Aldi berean diagnosi eta tratamendu banakatuak egin behar dira, kasurik larrienetarako babes-baliabideak zehaztuta.

5.3. Lan-taldeak egindako lanetako funtsezko beste osagai bat izan da biktimei laguntzeko sistemen azterketa, lotuta dagoena informazio eta gizarte-laguntza integralarekin, araudian jasotzen den legez; izan ere, emakume bakoitzaren konstituzio-eskubideak horien bidez bihurtzen dira eraginkor eta egiazko bere bizi-inguruabarretan: osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, berdintasunerako eskubidea eta sexu arrazoiengatik ez baztertzeko eskubidea.

5.4. Emakumeentzako gizarte-laguntza indartzen jarraitu beharra dago, salaketa aurretik abian diren zerbitzuak abian jarrita. Halatan, osasun-zerbitzuetan detekzio eta abordatze protokoloek duten garrantzia azpimarratzen dugu, horien lana

ezinbestekoa baita generoko indarkeria kasuetako esku-hartzea hobetzen jarraitzeko.

5.5. Arreta berezia jarri diegu Biktimei Laguntzeko Bulegoaren ekarpenei; hain zuzen ere, jarduketa-protokoloetako koordinazioa areagotzeko eskatzen dute, departamentuen arteko ikuspegitik elkarren arteko lana egin dezaten administrazio publikoek eta erakunde zibilek, eskura dauden baliabideen eskaintzari dagokionez bikoiztasunak ekidite aldera. Baliabideak eta zerbitzuak ugaltzea positiboa da inondik ere hasiera batean, baina haien arteko koordinazioaren arazoak du lehentasuna gaur egun, baldin eta eraginkortasunik handiena lortu nahi bada biktimei erantzun instituzional integral eta eraginkorra ematerakoan.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da sexu-erasoen eta etxeko tratu txarren biktimei laguntza integrala emateko erakunde arteko akordioa sinatu zenez geroztik –2002an sinatu zen, eta une honetan aldatzen eta gaurkotzen ari da–, Nafarroako Berdintasunerako Institutua dela akordioaren jarraipena egiteko batzordearen buru, eta hartan ordezkaturik daudela generoko indarkeriaren biktimen prebentzio, babes eta leheneratzearen arloan esku hartzen duten erakundeak, politika berariazko eta sektorialen bidez. Nafarroako Berdintasunerako Institutua arduratzen da politika horiek sustatu eta koordinatzeaz, Nafarroako Foru Komunitateko emakumeentzako eta gizonezkoentzako aukera berdintasunaren lehen planaren esparruan, 9. atalean emakumeen aurkako indarkeriaz ari baita.

Datu-base komun bat zentralizatzeko sistema berri bat abian jarri izanaren berri izan dugu. 2010aren hasieratik aitzina arian-arian ezartzen ari da Generoko Indarkeriari buruzko Espedienteen Erregistro Integrala. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak bultzatutako Justiziako Gizarte Zerbitzuak kudeatutako proiektu bat da, berekin dakarrena datu-base bakarra sortzea generoko indarkeriari buruzko espediente bakoitzeko, eta hartan jasoko dira generoko indarkeriaren esku jarritako jarduketa, prestazio eta zerbitzu guztiak (sozialak, polizialak, judizialak, enplegu arlokoak, laguntza juridikokoak, etxebizitza arlokoak, eta abar).

Datu-base bakar horri esker hobeki ezagutuko dugu zertan den Nafarroan emakumeen aurkako generoko indarkeriaren fenomenoak, eta hartara, berriz, indarkeria hori desagerrarazteko politikak nahiz biktimei laguntzeko neurri zehatzak taxutu eta ezarri ahalko ditugu. Hori guztia, Nafarroako Berdintasunaren Institutuak ikuskatu eta koordinatuta.

5.6. Biktinek gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubideari dagokionez, lan-talde honek aintzat hartzen du toki entitateek muntako zeregina dutela generoko indarkeriaren prebentzioan eta horren aurkako borrokan nahiz laguntzako gizarte zerbitzuak, larrialdikoak, laguntzakoak, harrerakoak eta erabat leheneratzekoak ematean.

Zenbait udaletan, herritarrengandik gertuen dauden administrazioak diren aldetik, kasuan kasuko harrera-baliabideen eta zerbitzuen bidez izandako jardunbide onen eta esperientzia positiboen berri izan dugu.

Orobat egiaztatu dugu zein garrantzitsuak diren herrietan emakumeari informazioa emateko zentroak eta zein garrantzitsua den biktimari lagun-egiteari eta psikologikoki prestatzeari buruz egiten duten lana. Emakumeari Laguntzeko Tuterako Zentroa nabarmendu dute agerraldia egin duten pertsonarik gehienek, Nafarroako Foru Komunitatean gisa horretako zentro berrian ezarzerakoan jarraitu beharreko eredu gisa.

Orobat nabarmendu nahi dugu arlo horretan esku hartzen duten esparru juridikoko profesionalak, abokatuek eta emakumeen talde eta erakundeek erakutsitako konpromisoa, muntako ekarpenak egin baitituzte. 6. OSASUNA.

6.1. Generoko indarkeriaren prebentzioan esku hartzeko ezinbestekoa da ahal diren baliabide guztiak jartzea profesionalen eskura. Generoko indarkeria pairatzen duten emakumeentzako laguntza medikoa beste lan-tresna bat izan behar da, eta detekzio-protokolo bat ezarri beharko litzateke, osasun-zerbitzuek jardun dezaten emakumearen aurkako tratu txarra egon daitekeela uste den kasuetan.

Tratu txarren hamar kasutik zazpi oharkabearen pasatzen omen dira ohiko laguntza klinikoa ematen denean; hortaz, bitartekoak jarri beharra dago, bisita klinikoetarako prestakuntza berariazkoa emate aldera eta trebetasunak garatze aldera, eta lan-planak taxutu beharra dago, osasun arloko langileen parte-hartzearekin, tratu txarra egon litekeen kasuetarako susmo-irizpideak eta jarduteko jarraibideak ezartzeko.

6.2. Une honetan Nafarroako Osasun Publikoaren Plan Estrategikoa aztergai eta eztabaidagai delarik, egokia eta beharrezkoa da plan horretan jasotzea generoko indarkeriaren eraginari eta osasun-laguntzari buruzko azterketa bat.

7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.

Uste dugu ahaleginak areagotu beharra dagoela, bitarteko egokiak izate aldera. Hartara, ondoko hobekuntza proposamenak egin nahi ditugu:

7.1. Lan-taldean ikusi dugu arazo bat dela biktima izaera egiaztatu behar izatea alde aurretik, Generoko indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotzen diren prestazioak eskuratu ahal izateko. Hortaz, uste dugu beste bide batzuk ireki behar direla, gizarte nahiz osasun zerbitzuen bidez tratu txarrak kreditatzeko eta “muntak txiki-goko” prestazioak edo bitartekoak baliatzeko, biktimentzako laguntza direnak jabeakuntza prozesuan eta, kasua bada, indarkeria egoera “judizializatzeko” erabakiaz hausnartzean. Zenbait prestazio jasotzeko –babes ofizialeko etxebizitza bat jabetzako araubidean erosteko edo bestelako laguntza batzuk lortzeko– tratu txarrak frogatu beharra dago, epai bidez, indarreko babes-agindu bidez edo indarreko bestelako kautelazko babes-neurrien bidez.

7.2. Gure ustez, garrantzitsua da lehentasuna ematea gatazka desaktibatzen eta horien judizializazioa ekiditen laguntzen ahal duten tresnei; izan ere, gatazkak epaitegira iristen direnean berandu-egi da horiek konpontzeko.

7.3. Garrantzi handia ematen diogu familia-bitartekotzari (aldatzekotan dago), eta uste dugu komenigarria izanen litzatekeela kentzea abenduaren 28ko 1/2004 Foru Legean aurreikusitako tratu txarren kasuetan bitartekotza egiteko debekua eta otsailaren 26ko 16/2007 Foru Dekretuko 11. artikuluko salbuespena. Kasu askotan, segur aski, ez da bidezkoa bitartekotza, baina beste askotan bitarteko on bat izan daiteke, batez ere zabalegia delako arau indardunean tratu txarrari ematen zaion adiera. Gisa horretako programak abiarazi beharko lirateke zigor eremutik kanpo, judizializatu gabeko kasuetan.

7.4. Poliziaren egoitzara jotzen duten indarkeriaren biktinek Emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzuaren aholkua eta laguntza jasotzen dute, baina, gure ustez, lege-aholkularitzako zerbitzuak bultzatu beharko lirateke lehendabizi, bai laguntza integraleko ekipoen eta zentrozen bidez bai emakumeei laguntzeko zerbitzuen bidez.

Laster jarriko dira abian generoko indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak –Gizarte Zerbitzuen Zorroan dago jasota prestazio hori–, “biktimei informazioa ematea, bideratzea eta, kasua bada, laguntza ekonomikoa, lan arlokoa edo/eta psikologikoa ematea xede duen ingurune irekiko esku-hartzea” helburu. Gure ustez, beraz, gizarte-laguntza emanen zaie salaketa jarri aurretik nahiz ondoren ere, baldin eta salaketa jartzen bada.

7.5. Biktimen segurtasunari dagokionez, agerian geratu da laguntza juridikoa hobetu beharra dagoela. Halatan, generoko abokatutzako profesional gehiago behar dira, indarkeriaren alorrean adituak, ofiziozko txandan, eta detektatu dugun praktika bati buruz ohartarazi beharra dugu; izan ere, txanda espezializatuaren bidez berdin-berdin artatzen dira generoko indarkeriaren biktimak eta akusatuak.

7.6. Agerian geratu da orobat ez daukala inolako funtsik generoko indarkeriaren arloan salaketa faltsuak gertatzen direlako akusazioak.

7.7. Tratu txarrak eragiten dituztenentzako birgaitze tratamenduak ezarri izanari buruzko balorazio positiboa egin dugu.

8. GOMENDIOAK.

8.1. Indarkeria sexistaren biktimaren kontzeptua, foru legedi indardunean ezarritakoa, aldatzea proposatzen dugu, generoko indarkeriaren arloko estatuko legedira egokitzeko; generoko indarkeriaren biktimen kontzeptuak, hartara, emakumezkoen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimak hartuko ditu soilik, indarkeria mota hori ezberdina delako beste batzuen aldean, ongi ezarri dutenez gero nazioarteko, estatuko nahiz foru erkidegoko erakundeek, egiturazko genero-desberdintasunen ondoriozkoa dela jotzen baitute indarkeria mota hori.

8.2. Sendotu egin behar dira generoko indarkeriaren eta berdintasunaren alorreko irakasleen hasierako prestakuntza eta prestakuntza etengabea, eta orobat sendotu behar dira eskola curriculumean eta testuliburuetan arlo horri buruzko edukiak, berdintasun-harremanak eraikitze aldera haurtzarotik beretik.

8.3. Hezkidetzat ziurtatu behar da, uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legean profesionalen prestakuntzari dagokionez eta hezkuntza-materialetan generoaren ikuspuntua sartzeari dagokionez ezarritako neurriak garatzeko zuzkidura ekonomikoren bidez.

8.4. Sentsibilizazio kanpainak bultzatu behar dira, emakumeen biktimizazioa eta gizonak erasotzaile potentzial edo indarkeriaren konplize bezala estigmatizatzea eragin dezaketen zenbait joera zuzentze aldera. Herritar guztiei helarazten zaizkien mezuek generoko indarkeriaren biktima diren emakumeen autonomia pertsonala eta gizarte osoaren haienganako elkartasuna, beharrezkoa baita, sendotu behar dute. Gizonei zentzu positiboa jabeldu beharko litzateke beti, jarrera sexisten aurkako borrokan lagun direnak nabarmenduz eta harreman berdintsuagoek haienentzat ere dituzten

abantailak erakutsiz. Hori dela-eta, positiboa da Berdintasun Planaren bidez gizonezkoak berdintasunaren aldeko lanean biltzeko dinamika bat abian jartzera; dinamika hori jada emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzenduta dauden eta egun abian diren ekintzen osagarria izan da. Gizonezkoak jarrera berdintsuagoetaranzko aldaketan inplikatzeko aldera, beste helburu batzuen artean proposatzen dugu emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatuta dauden eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa duten gizonen kopurua handitzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza duten gizonen kopurua handitzea eta gizonen aurkako lanetan eta pertsonen zainketan ardurakidetasun handiagoa izatea. Bestalde, sektore ahulenei, esaterako emakume etorkinei eta gazteei, bideratutako sentsibilizazio kanpaina berariazkoak egin behar dira.

8.5. Ezinbestekoa da emakumeen aurkako tratu txarren aurkako borroka arduratzen diren erakundeetako kideak sentsibilizatzeko eta hezteko prozesuekin jarraitzea.

8.6. Jarduketa-protokoloetako koordinazioa areagotu behar da, departamentuen arteko ikuspegitik elkarren arteko lana egin dezaten administrazio publikoek eta arazo horretan lan egiten ari diren erakunde zibileko erakundeek, eskura dauden baliabideen eskaintzari dagokionez bikoiztasunak ekidite aldera.

8.7. Irrotasunez bultzatzen jarraitu behar da zerbitzuak balizko salaketan aurretik abian jartzea. Zerbitzu horien artean egonen dira laguntza psikologikoa eta laguntza juridikoa ematea salaketaren aurretik, generoko indarkeriaren emakume biktimei laguntza ematen adituak diren unitateen bidez.

8.8. Bultzatzen jarraitu behar dira generoko indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak, kontuan hartuta "biktimei informazioa ematea, bideratzea eta, kasu bada, laguntza ekonomikoa, lan arlokoa edo/eta psikologikoa ematea xede duen ingurune irekiko esku-hartzea". Gure ustez, beraz, gizarte-laguntza emanen zaie salaketa jarri aurretik nahiz ondoren ere, baldin eta salaketa jartzen bada.

8.9. Emakumeei aholku emateko eta lehen unetik lagun egiteko programa bat sustatu behar da, haien autoestimua indartze aldera, eta generoko indarkeriaren aurkako herritarren konpromisoa sustatu behar da, gizartearen gaitzespena ez dadin salaketa egitera mugatu. Erakunde publikoek ere garatu behar dituzte proiektuak eta babestu behar dituzte herritarren ekimenak, lagun-egite

hori bideratzeko. Halatan, gizarte zerbitzuen zentroek erkidegoetako gizarte-ehunari buruz duten ezagutza oinarri, biktimei lagun egiteko boluntario-eta babes-sareak ezartzea erraztu beharko da, generoko indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeek koordinatuta.

8.10. Irizpideak bateratu behar dira generoko indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko talde guztietan, emakumeen eta seme-alaben leheneratzeari ekin ahal izateko, kontuan hartuta horietako bakoitzaren berariazko arazoak. Horretarako, generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala hobetu behar da, irisgarria, kalitatezkoa eta espezializatua izan behar baitu.

8.11. Gure ustez, tratu txarren salaketa jarri duen emakume batek, egoki iritzitako arrazoiak direla-eta salaketa kentzea erabakitzen baldin badu, ziurtatuta izan behar du generoko indarkeriaren biktimei laguntza emateko zerbitzuen laguntza eta jarraipena ziurtatuta izan behar duela.

8.12. Generoko indarkeriaren aurrean osasun arloko jarduketa protokoloen ezarpena eta garapena hobetu beharra dago.

8.13. Gure ustez, Generoko indarkeriaren aurkako behatokiari eta Berdintasunaren Ministerioari proposatu behar zaie egin beharreko lege aldake-

tak egin daitezela planteatu dezaten, familia-bitartekotza ahalbidetze aldera bitartekotza hori gomen-dagarria izan daitekeen generoko indarkeria kasuetan, bai eta Zigor Kodeko 57.2 artikulua aldaketa ere, urruntze-zigorra aplikatzera behar-tzen baitu tratu txarreko epai guztietan.

8.14. Ziurtatu behar da biktimei jakinarazten zaizkiela haien segurtasunean eragina duten ebazpen judizial eta erabaki administratibo guztiak, eta bereziki erasotzailea espetxetik behin-behineko nahiz behin betikoz irteteari buruzkoa.

8.15. Espetxe erakundeekiko lankidetzaren hitzarmenak sustatzen jarraitu behar da, bultzatze aldera generoko indarkeria dela-eta kondenatutako pertsonen betetzen dituzten zigorrak erkidegoaren onurarako direla, eta erakunde publikoek zigorrak betetzeko eremu zehatzak eskainiko dituzte.

8.16. Azkenik, indarkeria baliatzen duten gizonentzako berreziketa programak sustatu eta bultzatu behar dira, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 42. artikuluan xedatutakoa betetzen dela ziurtatzeko.

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean.

Lan-taldeko lehendakaria: Concepción Mateo Pérez

